



IZPARAK

BIZKAYA

Lekeitio.

Gure jayak.

Ganien doguz geure efiko jai andijenak: Sanantoliñak. Gogañu arte, nai dan beste jantza egin biako dogu. Aste betian, eztago efomerija baño besterik. Domekan da bisperia, eta egun ori aprobetxateko, lenengo pelota-jokua ixango da. Joko bi.

Gero, seiretan urtengo dabe kontsijueko senar-emaztiak efiko ume guztiak atzetik dabezala. Eta aremaiteketan bai zapafadia, kanpa, plapla eifekuak, musikia, santzuak, uyiyyiak... zoruak nagosil!

Beporen txistuak be, eztabe aida makala erabiliko.

Bijaramonian, dultzañeruak goixian goixetik asiko dira kalerik-kale, eta Bandia ta Txistularijak be bai. Meza nagositan Zelaya'tar Damian jaunak egingo dau sermoia, eta jafayan, oi dan lez, prezesiñoia.

Beste jaikun guztiak eztaguz emen banan-banan ixentauko. Ezpatadantzari, aufezku, pelota-joku, dantza-soñu, ta abar. Gernika'ko eresbatza yatorku gabetarako. Ai, antxiñako egunezko efomeri edefak! Bijaramonian, bizikleten kaferia: Lekito, Ibañangelu, Lekito, Ondafu, Befitu, Miloi, Lekito. Federa ba-kuentzat. Gero, zinfetakua. Pelotakia, ta efomerija.

Ilen 4'gn. batelen estropadak, antzafak, eta abar. Pelotaldija, ta yantzaketa.

Ufengo egunian, bafegafijak plazan; pelota-partidua, efomerija ta «pueo artipizilak». Eguerdijetan, kontzertua egunero.

Sapatuan, perijia ta beyen probak. Gabaz, soñua. Ta kitu.

Bisperiaren bisperan, *berbenia* ei dago Sosisdarian. Mantoien bila asifa ei dagoz batzuk. Eztauke bañia makala, nigana ba-datoz olakuen bila. Zer uste dabe, ba, yantzala lotsagafi ofetarako daukadazala neuk mantoiak? Datozela maria-goran neure ondora, manto zurifan!

AITZ-MAHURA

Bilbao.

—Bilbao'ko efi-jayak ba-doz joan eta ba-dirudi eurakaz batera yoakula udea bere. Igandean amaitu zan Aste Nagosia esaten yakona eta egun atan zerutik jausiriko euri-truxuak ez ziran naiko izan jayak atzeratuteko, atefune eguzkitsuakaz baliauta egin al izan bait-ziran estropadak eta zezenketa. Jai-ondokoak doguz orain irailleko Andra Mari egunerarte. Egurdialdia ozkifi eta itxasoan itxaskifi.

—Ibayan egiñiko trañeru-estropadetan Ofio'k irabazi dautso bafiro Sestao'ri. Sestao'ko efemulariak Burdin-Olako langileak dira; eurak badazaue oriotafak geyago dirana, baña igazko markea obetutea zan euren guraria. Batel-estropadetan, Les Arenas'koak urten eben garaile.

geyago aztefenik izan barik. Irugafena Lydia Lehericy andereñoa 1933'n Lourdes'era yoan eta biurtu zanean batean osatuta gelditu zan, eta afezkerero sendo iraun eta oin ezkontuta bizi da.

M.'tar G.

Mañari.

Elizkixuna.

Igandez, saspiretako mezan, gure neskato mutikoak ileroko Jaunartzia egin eben. Nagi usain barik goiztar ibili ziran.

Lugiñak.

Lusagafa etxeratzen eta arbiija (naboa) erefen daragoyoe. Lusagafa (patatia) aurten polifo dago.

Eguraldija.

Batian ozkifi ta bestian bero, dagonila beingoan igaro. «San Lorenzo'ko, esku batian sue ta bestien ure» esaten dabe. Aurtengo dagonilak, esakun ori ederto egiztau dau; euri-zapafada andijen ostian bero galantak eginda.

Batzara.

Emakume - Abertzale - Batza'kuak, lengo igandez egin gendun batzafa, igaroriko urteko gora-bera gustijok ikusteko. Bakez ta umorez egin zan dana.

Ituri barija.

Entzun dogunez, Oztortia'tik ura ekafita, Urkiola'ko aldatzian itufi bafi bat egiten doyaz. Eta, itufi ori Diputaziñuen kostuz egingo ei-dabe. Oztortia'ko ura ur ona da; enparauko itufijetakoak be ur txafak ez tira baña.

Agurtu.

Larunbatez agurtu genduzan Urkiola'n, Enbeita'tar Kepa euzko olerkari andija, Kortez'tar Elizabete andera, Anuzita'tar Martin eta Untzue'ta'tar Portunata abade jauna.

Juan etorrijak.

—Gazteiz'era jua ziran Bilbao'tar Efamone emakume zintzua ta bere Imanoltxu.

—Areatza'ra Befenetxea'tar Polentzi abade jauna ta Iturbe'tar Imanole emakume zintzua.

—Emen egun batzuk igarota, larunbatez jua zan Barakaldo'ra, Sagastagoitia'tar Domeka, efiko semia.

—Bilbo'tik etofi zan Gafido'tar Imanol.

Pederiko pozik.

Kapana-erdiko Pederiko, EKIN'ek bere esanak argi ta garbi patzaraz ekafi ebazala-ta, pozez be pozez egon zan. Pederiko, ta bafa bere sendija be euzkeltzale onak eta asteroko eder onen irakurle zintzuak doguz. Euroen etxera, EKIN igandero bape utsik egin barik sartzen da, ta pozik irakurten dabe. Ori ondo!

EKIN zabalduaz doya.

Igandez egon zan emen «Kasketa»-ko il'pon'en semia, taketa lako muti-ia; ta berak esan euskun, euren etxera be EKIN igande gustijetan Peru ta Marijen etxera lez sartzen dala. Bere atak, «papelak» gauza edefak eta kontu politak ekarten dauzala ta ain barik eztauela «psau» gura izaten eta. Orixe ederto!

MAÑARIKO

Eleiz - Jantzi ta urregintza A. Rui-Wamba

Eleizak jasleko biar dan gusila emen aurkituko dozue ona ta merke

Plaza Nueva, 10 Ufutzikiña 14.238

BILBAO

• Lugiñak EKIN irakurri •

Efoma - Batllano'fik.

Gastel Gandolfo'n Aita Santua iker-tu dabe, beste batzuen artean: Ipar-Amerika'ko «Catholic Travel League» bazkunako 125 lagunek. Aita Santuak atseginiñez ikusten dituala esan dautse batez bere oin Clevehar'd'en Ipar-Amerika'ko Eukaristi Batzafa gogoz gertatzen dabilzaleko. Berak be tarte-ko izan nai dabela yai eder aretan eta Ordelarizat. Hayes kardenal agurgafi ta maitea izentau dabela. Albano'ko abadeak be ikertu eben eta Frascati'ko bidezkunde batek; eta pantze-tar talde batek.

Dusseldorf eta Kolonia'tik 140 Maria'ren alabak euren kapilauagaz. Aita Santua'k poz andia artzen dabela esan dautse euren abefitik ainbeste izpar itun eltzen dan aldi onetan, eta eurak egiten dituen zabalkunde-lanak gorald-udoren onespena emon eutsen.

Eskintza bai.

Venezia'ko Eskier, subaro Bazkunaren izenean, Berti Pantzeska ta Romolo Volpini'k ikertu dabe eskintza begiko bat egiteko. Eun subero agiri edo «poliza» eskiñi dautsez suen aurka eleiza txiroak zaintzeko, gustiz miloi bi lira balio dituenak. Aita Santuak bere eskar ona agertu eutsen, igaz be Bazkun onek abade txiroentzat «bizitza poliza» emon eutsezala poz eskafez gomutauaz.

Euskotar baf zoriondun iragarfeko : : : :

Ointxe asi dira lanak, euskotar onbidetsu bat deun iragarfeko. Etxekopar abaren deun auzia. Pau'n egin da lenengo batzafa Gotzain agurgafiaren aufean, Bethafam'ko abade burua bertan zala. Etxekopar aba, bere Gopatazako Nagusi izan zan, eta egin-eginean be Garikoitz Mikel zorundunaren ufengo.

Batzar onetan izentau ziran auzi onetan lan egingo eben epaikariak. Gustiak oi dan ziña egin eben. Norbait zinañtza emon bear ba'dau, Aita Leon Baradat (Bethafam'era) zuzendu bear dau, berau da ardura ori dabena ta. Gotzainak be eleiztar gustiei dei egin dautse. otoltz egiteko, auzi onek ondo urten dayen. Ia laster beste euskotar bat zorundunen izendegian ikusten dogun!...

Sulza'n katoliko Batzafa.

Dagoniña-31'tik Iraña-2'ra Suiza'n VIII'n Katoliko Batzafa egingo dabe. Azkenengoa Lucerna, Zoug, Saint Gall, Bale, Lucerna ta Friburg'en egin ziran. Oingoa be Friburg'en izango da. Uste da gizoste andia elduko dala batez be yakitunen artetik.

Alemania'ko Gotzain Batzafa.

Alemania'ko Gotzain gustiak Bertram kardenala buru dabela, Fulda'n egin dabe urteroko Batzafa. Katoliko gustiak euren erabagien zain dagoz, batez be agintarien aldetik euren zineñeste ta oituren kaltez dibabakeri asko yasan bear dabez ta. Yakiña da, Konkordatoaren aurka egin diranakaitik euren asafea agertuko dabela. Orain arte artu dituen erabagien bafi ez dakigu; baña laster oi daben Idazkian azalduko ditue eleiza gustietan irakurteko. Ez daitela gertatu igazkoa. Igaz, ba, Gotzain-idazkia argitaltzen ez eben laga izparingietan.

“Jocisten” lanak.

Egunokaz «Jocisten» amargafen urtea Beljika'n andikiro ospatzen da-ta, egoki izango da bazkun onuragafi onen lanak zerbait aitatzea. Bazkun onen asmoa, Langile-Gaste Katolikoak dira-ta, langileak langile artean zabalkundeagitea da. Euren asmoetatik bat, bazkunako ez diran langileak Paskoakoa egiten eroatea da. Ofetarako dei egiten dautse, dauken egin-

beafa gogoratu eragiñaz, ori ta izparingien bidez. Baña ofez gañera, banan-banan ikertzen ditue euren etxeetan eta bi ta iru bidar be bai Paskoakoa egitera bultzatu ta gertatzeko.

118.000 langileri banan dei au egin eta 28.502 eldu ziran eurekaz batean Yaunartzera. Onein artean asko izan dira urte askotan Yaunartu ez dabenak. Eundakak lenengo Yaunartza egin ez ebenak ainbat izan dira bateatu bakoak be, ofetarako gertau ziranak. On biurtu diranak be 2 000'ra eltzen dira.

Lan edefa egiten dabe, zineñestan sendotu ta zabalkunde-lanetarako gertauaz. Langileen artean gauza eder eta beafekoagorik gitxi an eta emen be...

Yon Bosko Deunaren Iru dia Batllano'n :

Batikano'ko eleizan Gopatz Iraste izan diran Deunen irudiak atxurdiñean eginda agertzen dira. Bakoitzak goibe bost edo sei metro izaten ditu. Kafara'ko marmol ospetsuetatik gaya ekarten dabe. Ointxe D. Bosko ta bere ikasleen irudiak egiteko 67 tonalada ekafi ditue, ari edefa dau esku artean ertilariak. Andik atarako ditu Bosko deunarena, Savio Domeka gastetxoena, deun ospez il zan mutilkoa, Kagliero kardenalarena ta Keperin Namumeura, Patagonia'ko «yauntxo» baten semea bere sendi gustiaz katoliko egin zana. Aste batzuk baru D. Bosko'na Batllano'n ipiñiko dabe.

Zirilo ta Metodo Deunen Ikufatzak : : : :

Txekoslovakitafak aurten andikiro ospatu dabe euren Zaidari Kuiril eta Metodo Deunen mila ta befogetamargafen urtea. Slabitafen zineñeste zabaltzale izan ziran belgundariok, efi-izkuntza aldezteko be lan andiak egin zituezan, eta gaur be eurak ongilerik andien lez goraltzen ditue. Txekoslovakitar agintari buruak, urteufen au dala-ta Kuiril eta Metodo Deunen irudiak ikufatz edo seluak atara ditue. Deun bien irudia dabe, erdian Kurutzta dabela, goi aldean «Ceskoslovensko» eta bean «Sv Cyril a Metodej». Koro bat, ta 2 eta efeal bikoak atara ditue. Gomutau ondo irabazita dabe Eleiz eta abefiaren ongile gurenok.

Mexiko'fik.

Mexiko'n agintari bafiakandik katolikotafak itzaropen andirik ez dabela izan bear bein baño safiagotan esan dogu, bertako bafi ondo dakienak orixe iragarten eben-eta.

Beintzat, Cardenas'ek eta be, sozialisten irakatsiak yafaitu ta ikastoletan zabaltzeko asmoa agertu eben. Alan da be, biguntxoago agertu gurarik edo asmoa aldatu dabelako ala katolikotafak atzipetuteko bear bada, erlijio-gauzetan zerbait azkatasun geyago izango dala esan leike. Egunokaz, Mexiko Uri buruan bost eleiza bafiro idigi dira, katolikotafen poz andiagaz. Alantxe yafaituko al dabe, bidebagekeriak alde batera itxita.

Lourdes'ko Osatze afgafiak.

Egunokaz ospatu da, Prantzia gustiko 62'n bidezkundea, eta beti lez yoan dira, aufeko urtean osatutako batzuk, osasun onagaz yafaitzen daben ikusteko. Onein artean iru izan dira beintzat ontzat emon diranak. Bat ingalandar lekaimea dan Sor Mary Emmanuel. Osalariak Vallet yakintsua buru dabela aztertu dabe, eta urte batean osatu zan ezkerro, pixuan 28 kilotik 72'ra igon dau. Zearo aztertu ondoren, bere osatzea goiko indar barik ezin azaldu leikela esan dabe.

Beste bat Madalene Dodd anderea izan da. Igaz 32 kilo zituan eta aurten 60, elbafituta eukan besoa gustiz osatu eta zauriak be gustiz itxi yakozan,

ULEJUAN